ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2021eko martxoaren 5a, ostirala • 26 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LEGUTIOKO UDALA

**Behin betiko onestea 2021eko aurrekontu orokorra**

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2021eko aurrekontu orokorrari hasierako onespena emateko erabakien aurka. Beraz, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onesten da. Hona hemen kapituluka laburturik:

Gastuen egoera

| | |
|---|---|
| I. Langile gastuak | 855.218,00 |
| II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 1.540.966,00 |
| III. Finantza gastuak | 2.360,00 |
| IV. Transferentzia arruntak | 470.629,18 |
| V. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk | 0,00 |
| VI. Inbertsio errealak | 237.015,88 |
| VII. Kapital transferentziak | 50.000,00 |
| VIII. Finantza-aktiboak | 20.000,00 |
| IX. Finantza-pasiboak | 0,00 |
| **Gastuen egoera, guztira** | **3.176.189,06** |

Diru sarreren egoera

| | |
|---|---|
| I. Zuzeneko zergak | 1.172.581,00 |
| II. Zeharkako zergak | 50.000,00 |
| III. Tasak eta bestelako diru sarrerak | 907.812,18 |
| IV. Transferentzia arruntak | 883.688,00 |
| V. Ondare bidezko diru sarrerak | 26.242,00 |
| VI. Hirigintza jardunen ondorioz izan diren inbertsio errealak eta bestelako sarrerak besterentzea | 0,00 |
| VII. Kapital transferentziak | 115.865,88 |
| VIII. Finantza-aktiboak | 20.000,00 |
| IX. Finantza-pasiboak | 0,00 |
| **Diru sarreren egoera, guztira** | **3.176.189,06** |

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa zuzenean aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Aldi berean, eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, osorik argitaratzen da udal honek onetsitako langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda.

**LEGUTIOKO UDALAREN LANGILEEN PLANTILLA, 2021KO EKITALDIA**

| PLAZA | Kopurua | Taldea | Azpieskala | Klasea | Kategoria | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **FUNTZIONARIOAK** | | | | | | |
| I.- GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOAK | | | | | | |
| Idazkari-kontuhartzailea | 1 | A1 | Idazkaritza-kontuhartzailetza | | | |
| II.- ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA | | | | | | |
| Administraria | 3 | C1 | Administrariak | | | |
| Liburutegiko laguntzailea | 1 | C1 | Administrariak | | | |
| Hainbat egitekotarako laguntzailea | 1 | C2 | Laguntzailea | | | |
| III.- ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA | | | | | | |
| III-I.- AZPIESKALA TEKNIKOA | | | | | | |
| Kultura eta euskara teknikaria | 1 | A1 | Teknikariak | Goi mailako teknikaria | | |
| Ingurumen teknikaria | 1 | A1 | Teknikariak | Goi mailako teknikaria | | |
| Kirol koordinatzaile teknikaria | 1 | A1 | Teknikariak | Goi mailako teknikaria | | |
| Psikologiako teknikaria | 1 | A1 | Teknikariak | Goi mailako teknikaria | | |
| Ekonomia teknikaria | 1 | A2 | Teknikariak | Erdi mailako teknikaria | | |
| III.II- ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA | | | | | | |
| Mantentzeko ofiziala | 1 | C1 | Zerbitzu bereziak | Egiteko bereziak | | |
| **LAN KONTRATUDUN LANGILEAK** | | | | | | |
| I.- LANBIDEETAKO LANGILEAK | | | | | | |
| Mantentze lanetako peoia | 2 | AP | Lanbideetako kideak | Egiteko bereziak | | |
| Garbitzaileak | 1 | AP | Lanbideetako kideak | Egiteko bereziak | | |
| Ate-zaintzako langileak | 1 | AP | Lanbideetako kideak | Egiteko bereziak | | |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**2021KO LANPOSTU ZERRENDA**

| | | | | | BETETZEKO BALDINTZAK | | | | | | | ORDAINSARIAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LANPOSTUAREN IZENA | LANPOSTU MOTA | PERTS. KOPURUA | DEDIKAZIO ERREGIMENA | BETETZEKO ERA | TALDEA | ESKALA | IKASKETA TITULAZIOA | HIZKUNTZA ESKAKIZUNA | DERRIGORTASUN DATA | BERARIAZKO EZAGUTZAK | UDALHITZ MAILA | DESTINO OSAGARRIAREN MAILA | BERARIAZKO OSAGARRIA | OHARRAK |
| Idazkari-kontuhartzailea | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | A1 | Gaikuntza nazionala | Taldearen arabera | 3 | | | 24 | 26 | 24.323,04 € | |
| Administraria I | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | C1 | Administrazio Orokorra | Taldearen arabera | 3 | | | 15 | 22 | 17.951,49 € | Amortizatzeko |
| Administraria II | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | C1 | Administrazio Orokorra | Taldearen arabera | 3 | 31/12/01 | | 15 | 22 | 17.951,49 € | Hutsik |
| Administraria III | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | C1 | Administrazio Orokorra | Taldearen arabera | 3 | 31/12/08 | | 14 | 22 | 16.142,68 € | |
| Hainbat egitekotarako laguntzailea | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | C2 | Administrazio Orokorra | Taldearen arabera | 2 | 27/2/01 | B gidabaimena | 12 | 19 | 16.393,11 € | Hutsik |
| Liburutegiko laguntzailea | Funtzionarioa | 1 | Lanaldi partziala | Oposizio-lehiaketa | C1 | Administrazio Orokorra | Taldearen arabera | 3 | 6/10/05 | | 15 | 22 | 10.257,52 € | Eszedentzian |
| Kultura eta euskara teknikaria | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | A1 | Administrazio Berezia | Taldearen arabera | 4 | 30/5/18 | B gidabaimena | 19 | 23 | 18.557,26 € | Hutsik |
| Ingurumen teknikaria | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | A1 | Administrazio Berezia | Taldearen arabera | 3 | | B gidabaimena | 18 | 23 | 16.748,66 € | Hutsik |
| Kirol koordinatzaile teknikaria | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | A1 | Administrazio Berezia | Taldearen arabera | 3 | 20/9/08 | | 19 | 24 | 17.787,98 € | Hutsik |
| Psikologiako teknikaria | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | A1 | Administrazio Berezia | Taldearen arabera | 3 | 1/9/08 | | 19 | 24 | 15.256,27 € | 2021eko urtarrilaren 20ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez amortizatua |
| Teknikari ekonomikoa | Funtzionarioa | 1 | Erabatekoa | | A2 | Administrazio Berezia | Taldearen arabera | 3 | 31/12/19 | | 18 | 22 | 19.759,77 € | Hutsik |
| Mantentze lanetako peoia | Lan kontratuduna | 2 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | AP | Lanbideak | Taldearen arabera | 1 | | B gidabaimena | 9 | 15 | | |
| Garbitzaileak | Lan kontratuduna | 1 | Lanaldi partziala | Oposizio-lehiaketa | AP | Lanbideak | Taldearen arabera | 1 | | | 7 | 15 | | |
| Ate-zaintzako langileak | Lan kontratuduna | 1 | Erabatekoa | Oposizio-lehiaketa | AP | Lanbideak | Taldearen arabera | 1 | | | 8 | 15 | | |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, osorik argitaratzen da arduraldi esklusiboa eta partziala duten karguen ordainsariei eta udal korporazioko kideen kalte ordainei eta haiek bilkuretara joateagatik ematen zaizkien ordainsariei buruzko erabakia:

Udalbatzako kideen ordainsariak.

1. Kargua arduraldi partzialez edo esklusiboz betetzen duten udalbatzako kideen ordainsariak hurrengo ataletan adierazten direnak izango dira, eta aurrekontu esleipena egin ondoren baino ez dira aplikatuko. Kasu horretan, udalbatzako kideei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie, eta korporazioak bere gain hartuko du dagokion enpresa kuoten ordainketa.

2. Alkateak dedikazio partziala izango du udalean, hau da, gutxienez lanaldiaren ehuneko 50eko benetako presentzia izan beharko du. Horren truke 17.600 euro gordin jasoko ditu urtean, hamalau ordainsaritan banatuta (hamabi ohiko ordainsari eta aparteko bi ekainean eta abenduan), eta ez du kalte-ordainik jasoko bilkuretara joateagatik.

3. Artikulu honetan aurreikusitako ordainsariak ez dira bateragarri administrazio publikoetako edo horien mendeko entitate, erakunde edo enpresetako aurrekontuen kontura ordaindutako beste batzuekin, ez eta beste zenbait jardunekin ere, hala xedatzen baitu Herri Administrazioetako Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak.

Udalbatzako kideen kalte ordainak.

Udalbatzako kideek ez dute inolako ordainsaririk jasoko kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik (udaleko osoko bilkura, informazio batzordeak eta kontratazio mahaiak). Udalbatzako kideek bilkura horietara joateko ibilgailuan egindako kilometroengatik baino ez dute ordainsaria izango.

Legutio, 2021eko otsailaren 24a

*Alkatea*
*ION ZUAZO ZUBERO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma:  2021.03.05 06:32:26 Z